

# GAZTELERAZKO "SOCIEDAD", "ASOCIACIÓN", "COMUNIDAD" TERMINOEN EUSKARAZKO BALIOKIDEAK

Rosa Otxoa-Errarte (\*)

SUMARIO: I. AURKEZPENA. II. SARRERA: ITZULPENERAKO ABIAPUNTUA. III. EUSKARAZKO HITZ BALIOKIDEEN PROPOSAMENA. IV. ONDORIOAK.

## I. Aurkezpena

Merkatal Zuzenbidean irakasle elebidunak izanik, gure lanak une honetan dituen berezitasunen jabe gera. Egoera normalizatu batetan, edonork bere hizkuntzan ideiak adierazteko gai izan beharko luke besterik gabe. Baina Unibertsitate mailan gauza ez da horren xamurra. Zientzia eremu bakoitzak kontzeptu ugari sortuak ditu eta ondorioz, beste hainbeste termino erabili ohi dira. Horixe da gure oztopotariko bat, garrantzitsuena agian.

Euskarak Zuzenbidean tradizioz izan ez arren, aitortu beharra dago terminologia mailan ez garela hutsetik abiatzen ari. Izan badira azken urteotan buruturiko zenbait lan eta saio. Hala ere amaitzeaz daudela edo eta nahikoak ez direla deritzogu. Zentzu honetan, gure izaera edo izpiritua kritikoa da. Zergatik? Nagusiki gure xedea euskarazko ikaskuntzen kalitatea lortzea delako. Eta kalitatea esaterakoan bi gauzez ari gara: euskararen erabileraz batetik eta ikaskuntza mailaz bestetik, biak osagarriak izanik.

Zuzenbidean euskara teknikoari dagokionez, denon ezagunak diren erabilera sakabanatu eta desberdinak ugaltu dira. Are gehiago, egoera hau guztiok salatzen dugula esango genuke. Argi dago lan bateratu baten beharra edo eta gutxienezko irizpide amankomun batzuen. Baina zoritxarrez, dagozkion instantzien arteko adostasun eza nabarmen agertzen zaigu. Gatazketatik emaitza onurakorrak jaso ohi diren arren, behar beharrezkoa deritzogu profesional desberdinen arteko lankidetzaz: hizkuntza teknikarien eta zuzenbide-teknikarien artekoa, alegia.

Guzti hau erraz esaten da, baina lankidetzaz hori nola gauzatu? Hor dago koska. Gainera, batetik lankidetzaz dago eta bestetik, bakoitzak bere arloan seriotasunez, sakontasunez, ikertuaz burutu dezaken lana. Horrelako hazia ereinduaz badago uzta jasotzerik. Ildo horretatik abiatuz, zehazki guri dagokigun lanak ikuspegi juridiko bat eskaini behar du. Gure egiteko nagusienetako bat euskaratu beharreko kontzeptu juridikoak argitzea litzateke, eta ahal den neurrian horiei euskaraz dagozkien baliokideak proposatzea, proposamen hori arrazoituaz, noski. Lankidetzaz horren barman, zuzenbide-teknikarien lanak alde horretatik jo behar du eta garrantzi itzela dauka euskaraz

---

(\*) Aipatu beharra dago, lan hau burutzeko, Donostiako Fakultateko Merkatal Zuzenbide Sailan, Igone Alzelai irakaslearen lankidetzaz.

termino aproposak lortu ahal izateko, zenbait argibide eta datu baliotsu erraztu ditzakeelako.

Lan hau ez da aisa burutzekoa. Zenbaitetan kontzeptu juridikoak ez daude erabat argi. Usu doktrina barruan iritziz desberdinak elkar jartzen dira Eta hori gutxi balitz ere, ezin ditugu ahanzti gure inguruko sistema juridi-koak, ez eta atzeritar ikertzaileak Elementu guztiekin jotzeko behar beharrezkoa zaigu eta horixe egiten saiatu gara.

Aurkezten dugun lan honen bidez gure kezka eta burutapenak plazaratu nahi genituzke eta dagokigun ekarkina egin. Horretarako Merkatal Zuzenbidean oinarritzko diren kontzeptu batzuk aukeratu ditugu besteren artean ("asociación", "sociedad", "comunidad"). Horien gainean eraiki dugu gure proposamena kritikotasun positiboz.

## II. Sarrera: Itzulpenerako abiapuntua

Hamaika aldiz ikustarazi zaizkigu "garbitasuna" eta "ulergarritasuna" aurkako kontzeptuak bezala, bata ala bestea aukeratzeko betan jarri izan zaigularik. Behin eta berriro errepikatu da euskara praktikoa, ulerterraza eta bakuna behar dugula, hizkuntza erabiltzaileari zaila gertatu ezker, gaztelera (edo eta frantsesera) jotzeko arriskua sortzen baita. Baina honek ez dauka nahitaez "garbitasunarekin" zerikusirik. Agian, sakoneko arazoa beste bat litzateke: erabiltzaileak duen euskararen ezaguera, alegia. Dena den, aipatu beharra dago zorionez, orokorrean euskara mailak azken urte hauetan gorakada bat jasan duela eta euskara tresna tekniko bezala erabiltzeko gai diren kopurua ere asko gehitu dela. Ondorioz, "ulergarritasun" ideia ere agian aldatu beharko genuke.

Zuzenbide arloko terminologiari dagokionez, etengabe agertzen zaigun argudioa tradizio gabeziaren kezka da. Euskarak ez du sekula Zuzenbidean jatorritzko funtziorik izan. Hemen garatu den Zuzenbidea erdaraz sortua izan da beti (gaztelera, frantsesez, latinez, bere garaian, edo eta E.E.E.ko hizkuntzetan, azken urteotan) eta erabilera ere hizkuntza hauetan egin izan da. Baian arazo antzerakoa izan zuten katalanak, gaztelera (latina izan baitzen goi mailako hizkuntza XVIII. mende arte) edo germanierak berak (adibidez BGB idazteko momentuan). Beraz, ez deritzogu horren arazo bitxi eta etsiarazlea denik, kezka garria bada ere.

Tradizio ezak badakar noski zailtasun bat: behar adina termino ez izatearena. Hau dela eta, sarritan euskaraz termino baliokideak ematerakoan, ulergarritasunean babestuz, gaztelera erabiltzen ditugun eta ezagunak zaizkigun hitzetara jo dugu. Zergatik joera hau? Batetik, gaztelera-erakiko menpekotasuna dago, ukalezina noski, batez ere Zuzenbidezko iturriei dagokienez. Bestetik, Zuzenbidean hitzek duten garrantzi berezia eta segur tasun juridikoa daude. Sarri itzulpenetan, kontzeptuak behar bezala bereiz teko eta bakoitzari termino bat esleitzeko, dagoen irtenbide bakarra erdal hitzak mailegatzea da. Baina beste zenbaitetan, badaukagu euskal hitzak aukeratzeko abagadunea. Hitz horiek gero erabiliak izango diren ala ez beste; kontu bat da, baina zergatik, jo sistematikoki erdal hitzetara?

Kontuan izan dezagun Mitxelenak "Hauta-Lanerako Euskal Hiztegiaren aurkezpenean hain ondo azaltzen duen arriskua. Honela dio Mitxelenak

"...Ez nuke nahi euskara beste hizkuntza baten errainu hits bihur dadin, eta "errainu" bitara har daitekeenez, argitzera noa zer esan nahi dudan. Guretzat "errainua" da guztiok itsatsirik daramaguna eta harako Peter Schlemihl hark galdu omen zuena" (1).

Arrisku hau errealtate bihurtu zaigu jadanik historian zehar. Sánchez Carrionek "El espacio bilingüe" idazlanean zera dio (2): "... En la obra de Lizarraga de Elcano (1748-1835), que recoge lo que debió ser el habla euskérica de Pamplona su cuenca..., se encuentran reconstrucciones como las siguientes: '... Da espiritu purissimo bat'. Y Lizarraga era, a fin de cuentas, escritor euskaldun y hombre que, sin duda, valoraba su idioma, pero la avalancha castellana en su léxico, en el orden de la frase, y en algunos conectivos está indicando qué vascuence tenía que usar para ser entendido por sus parroquianos". (Garai hartan, Iruña aldeko fededunek ulertuko zuten Lizarraga, gaur aldiz, Lizarragak "da" eta "bat" hitzak ere gaztelera eman beharko lituzke). Antzerako adibide anitz aipa dezakegu. Horregatik pentsatzen dugu mailegura jo aurretik beste aukera batzuk seriozki kontutan hartu behar direla.

Agian, lehen urratsa abiapuntua aldatzea litzateke. "Gaztelera honela esaten dena nola esan euskaraz?", galdetu beharrean, esanahia aurrean izanik, "halako honi euskaraz nola esan ote zaio, edo eta nola esan genezake?", galdetu beharko genuke. Eta ez onartu, besterik gabe, gaztelera hutsei atzizkiak erantsiaz euskal itxura emanik, "euskal hitzak" sortzeko joera.

Beste alde batetik, kontuan izan behar da ere, Zuzenbide arloko itzulpenetan faktore kaltegarrietariko bat itzulpen guztiak (edo askogatik gehienak) hizkuntza beretik egitea izan dela, hain desberdina den hizkuntza batetik gainera. Ondo adierazten du Mitxelenak: "nona larritasunaren sustraia: euskera mendeko ikusten du, gero eta medekoago erdararen. Eta gure artean ez ditugu aurrez-aurre euskeralerdarak, euskaralderara baizik. Guretzat, zinetan eta benetan, erdara, beste zerbait bezala, "no hay más que una" (3). Beraz, itzultzerakoan beste hizkuntzetako eredu ez jabetzea ez legoke inolaz ere soberan.

Zuzenbidezko kontzeptuen itzulpen lanetan aritzean, segurtasun juridikoaren galdekizuna agertzen zaigu, eta ondorioz, bi hitz-egitura desberdinen aurrean bakoitzarentzat izen ordain egoki baina lortzeko nahia. Segurtasun juridikoaren kezka oinarritzakoa da, baina gaztelera hitzez hitzezko itzulpenak eginaz soilik ez dugu bermatzen. Badakigu, jakin, gure artean indarrean dauden arauak gaztelera eginiko arauak direla gehienak. Baian arau horietan erabili ohi diren kontzeptu asko eta asko ez dira gaztelera sortuak izan. Neurri handi batetan garatuagoak diren beste Zuzenbide sistema batzuetatik erakarriak izan dira. Adibide gisa, Alemaniako ordenamendu juridikoak gure Merkatal Zuzenbidean duen eragin itzela aipa dezakegu.

---

(1) SARASOLA, I. *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1984.

(2) Ik. baita ere gorago aipaturiko Koldo Mitxelenaren aurkezpena.

(3) MITXELENA, L. *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, 1989.

Beraz, sarrera hau burutzerakoan, hona hemen Zuzenbidezko terminoen itzulpenari dagozkionez, argi utzi nahi ditugun burutapenak:

— Batetik, abiapuntua. Lehenbizi, itzuli beharreko kontzeptuaren edukia argi izanik, galdera egin: "halako hau nola esan ote da euskaraz, edo eta nola esan daiteke?".

— Bestetik, erreferentzia. Aipatu den bezala, gaztelera ez du zergatik izan behar gure erreferentzi edo eredu bakarra. Horrek gure gaitasun eza edo jakingabekeria besterik ez du adierazten. Gure inguruko Zuzenbide sistemak nahiko antzekoak dira eta zenbaitzu teknikoki edo eta doktrina aldetik askoz garatuagoak, hori bera kontzeptuen edukia argitzeko ere lagungarria izanik.

Ulergarritasunera bueltatuz, ezin dugu ahaztu zuzenbidearen hizkuntza, hizkuntz "artifizial" bat dela, eta honek hitz berezi, ez arruntak, eta orokorrean ez ulertuak ikastera behartzen gaituela. Gaztelaniazko "dividendo pa-sivo" terminoa ez da kalean ulertzen; zuzenbidean aditua ez denak ez du erraz erabiliko, ikasi egin behar ditu bai hitza eta bai esanahia. Behin ikasi ondoren ezin da ulertezina denik esan. Berdin gertatzen da euskal terminoekin, ikasi egin beharko ditugu, eta ikasi ondoren ulergarriak izango zaizkigu.

### III. "Sociedad", "asociación", "comunidad". Euskarazko hitz baliokideen proposamena

Gure inguruko hizkuntza guztietan aurki ditzakegu gaztelera hiru hitz hauen baliokideak, Zuzenbidezko hiru kontzeptu desberdin adierazten baitituzte. Dagozkien ordaina ematerakoan, lehen urratsa, haien atzean zer ezkututzen den jakitea da eta horretarako orokorrenetik hasiko gara

"**SOCIEDAD**" hitzak zera adierazten digu: helburu bat lortu ahal izateko kontratu bidez (borondatezko adostasunez) sortutako talde pribatu bat. Gehiengo doktrinak dionaren arabera, espainiar Zuzenbideak bi motako "sozietate" bereizten ditu: alde batetik Kode Zibilekoa, eta bestetik, Merkatal Kodean nahiz arau berezitan eraentzen diren merkatal sozietateak (beraz ez dago "merkatal sozietate" bat, egitura aldetik ezin da hau kontzeptu bezala eman). Bataren edo bestearen aurrean gauden jakiteko bi erizpide eman dira: eratzeko modua eta "sozietatearen" bidez egikaritzen den iharduera mota. Azken hau da erabakikor bezala hartu beharrekoa (4) (nahiz eta biek garrantzia izan, adibidez merkataltasun subjektiboa eta objektiboa bereizterakoan). Beraz, merkatal jarduera bat burutzen duena "merkatal sozietate" bat izango da; eta jarduera zibila denean (nekazaritza, esate baterakoi "Kode Zibileko Sozietatea". Hala ere, litekeena da azken honek, Kode Zibilaren 1.670. artikulua arabera, merkatal "sozietate" egitura hartzea (nahiz eta merkataritzara emana ez izan). Kasu hauetan bai izan behako da kontratua eskritura publikoaren bidez egina eta Merkatal Erregistroan inskribatua. Aldiz, jarduerak merkatal izaera duenean ez dago formaltasun

---

(4) Ik. VICENT CHULIA, *Compendio crítico de Derecho Mercantil I*, Barcelona, 1991, 311-312. Orr., bi irizpideak bateratuaz. Ik. RAZARES, *Comentario al Código Civil*, Madrid, 1991 1936 .e.h.orr.

hauen beharrik, erantzukizun mugatuko "sozietate" bat edo eta "sozietate anonimo" bat eratzea nahi ez bada, "sozietate kolektiboak" "sozietate" orokor bezala jokatzen baitu merkatal munduan.

Kode Zibileko 1.665.art. eta Merkatal Kodeko 116.art. interpretatzean, gehiengo doktrinak "sozietate" kontzeptuaren funtsezko ukan behar bezala irabazi-asmoa ezarri du (5). Baina, galdekizun hau gaur egun ezin da inolaz ere onartu, "sozietate" *kontzeptu zabalean* beste edozein helburu duten talde pribatuak ere sartzen baitira, beti ere helburu hori partaide guztiena den bitartean (6).

"Sozietate" orokor hori Kode Zibilean bertan aurki dezakegu, 1.665 eta ondorengo artikulutan. Araudi honek bi egiteko betetzen ditu: lehenengoa, jarduera "zibila" egikaritzen duten talde pribatu haiek arautzea litzateke eta bigarrena, Kodeek edo Lege bereziek xedatutako egiturapean eratu ez diren beste guztiak eraentzea. Hau da, sistemaren osagarri bezala jokatuko luke.

Aurrerago esan dugu, "sozietatea" kontratu bat dela. Orain esan behar dugu kontratu bezala bi ondorio sortarazten dituela: alde batetik partaideei zenbait eskubide eta obligazio ezartzen dizkie, eta bestetik, bere helburua lortu ahal izateko, antolakuntza bat eraikitzen du. Lehenengo ikuspegiak batez ere garrantzia dauka "pertsonek sozietateengan", egitura pertsonalistadun sozietateengan (haiek dira: zibila, kolektiboa eta komandataria beste batzuen artean); bigarrenak berriz, egitura korporatiboa dutenengan ("anonimoa", erantzukizun mugatukoa, "kooperatiba", eta "asoziazioa" bereziki).

Azken hau da argitu nahi dugun bigarren kontzeptua.

"**ASOCIACIÓN**" hitzak ere, helburu bat lortu ahal izateko borondatezko adostasunez sorturiko talde pribatu bat adierazten du, baina egitura berezi batez eraentzen den talde bat. Beraz, "sozietate" bat da, *kontzeptu orokorra edo zabalena* hartzen badugu, baina ezaugarri zehatz batzuk mugatzen duten "sozietatea" ordea. Lehenago aipatu dugun bezala, egitura "korporatibo" bat dauka. Zera esan nahi du honek: izen bateratu baten azpian jarduten duela, bere ordezkari organo berezi baten bidez burutzen dela eta guztiz independentea dela bere partaideekiko. Estatutu bidez eraentzen dira bere bizitza eta partaide eta elkarten arteko harremanak; gehiengoaren printzipioan oinarriturik funtzionatzen du (ez ahobatezkotasun bidez); bazkideen nortasunak ez du garrantzi handirik, elkarrekin berdintzen du aurrera nahiz eta bazkideak aldatu, nortasun juridiko osoa dauka (erantzukizuna mugatua da baita ere, pertsona juridikoak berak erantzuten du bakarrik, inoiz ez bazkideek); garbi bereizten dira erabakiak hartzeko organoa (batzar orokorra) eta organo administratzailea (zuzendaritzarako batzordea); helburuak guztiz ez pertsonalak dira, instituzionalizazioa maila gorenera iristen da "sozietate" mota hontan.

---

(5) Ik. beste askoren artean, VICENT CHULIA, 309.orr.

(6) Beste ordenamendu batzutan (zuzenbide germaniarrean bereziki) garbi ezartzen den ideia hau gure artean nagusiki GIRONek (*Derecho de Sociedades*, Madrid, 1976, 25.e.h.orr.) eta PAZ-ARESek defendatzen dute, honela zenbait talde "atipiko" eraentza batetara atxekituz (pentsa dezagun "barne-sozietatetan" adibidez).

Azkenik aipatu behar da bere helburu edo xedea gehienetan ez dela irabazi asmoa izaten. "Asoziazio" bat ez da eratzen merkatal jarduera bat burutzeko eta etekinak lortu ondoren bazkideen artean banatzeko (7). Kode Zibilak 35. eta 36. artikuluetan bereizten ditu *interes publikoa* duten "asoziazioak" eta *interes pribatua* dutenak. Azken hauetan sartzen dira Kode Zibilean bertan arautzen den "sozietatea" eta merkatal legedian (Merkatal Kodean nahiz lege berezietan) aurreikusten direnak (8).

*interes publikodunak*—orain definitu nahi ditugunak— 1964.go Asoziazioen Legean xedatzen dira (aipaturiko Kode Zibileko eraentza ordeztaille dela ahaztu ezin dugularik). interes publiko hau "instituzionalizazio" eta "transpertsionalizazio" bezala ulertu behar dugu. "Asoziazio" hauen esanahia gure mundu juridikoan oso zabala eta zeharo desberdina da. Adibide bezala aipatu ditzakegu: talde politikoak, talde herrikoiak, talde erlijiosoak, kirol taldeak, natura defendatzeko taldeak, erruki-egintzetako taldeak, "klub" desberdinak, ikerketarako institutuak, kontsumitzaileen taldeak edo eta industrialari nahiz merkataritza taldeak, beste askoren artean. "Asoziazio" hauek zerikusi handia dute, aipatu ditugun adibideak kontutan harturik gizarte arazo edo jarduerekin.

"**COMUNIDAD**" hitzak beste kategoria bateko kontzeptu bat ematen digu. Ez du helburu bat lortzeko sortzen den egitura bat adierazten, ondasun batzuen jabe izateko modu bat baizik, Kode Zibilaren II.Liburuaren III.Atalean eraentzen dena. "Komunitate" hau ondasun bat edo batzuen gain ematen da, hauen jabetza-eskubidea zatitua dago, partaide bakoitza zati "ideial" baten tituludun delarik. Kodeak arautzen duena batetik jabe hauen ondasunekiko betebeharrak eta eskubideak dira eta bestetik "komunitatearen" desegitea. Honek ez du nortasun juridikorik, beraz kanpora ez da sekulan unitate bezala agertzen. Hauxe da ezaugarri garrantzitsua. Ondorioz, "komunitate" bezala, ezin du enpresa jarduerarik egikaritu. Beste gauza bat da ondasun hauek "sozietate" batetara eramatea honen ondare bezala.

Euskaraz hitz desberdin ugari eman dira esangai horien ordain bezala. Adibidez, "SOCIEDAD" esateko "soziedade", "sozietate", "elkarte", "elkargo", "baltzu", erabili izan dira nagusiki. Horrela, maiz ikusi dugu egun karitako iragarkitan, estatututan, arauen itzulpenetan, "Soziedade Anonimoak", "Elkarte Anonimoak", "Elkarte Kooperatiboak", e.a. Baina baita ere "Kirol Elkarteak", "Idazleen Elkarteak", "Emakumeen Elkarteak", eta "Europako Ekonomi Elkarteak" edo "Euskal Herriko Elkarteak". Adibide hauen aurrean, argi dago ezinezkoa dela "**elkarte**" hitza kasu guztietan erabiltzea bakoitzean esanahia erabat desberdina baita.

"**Soziedade**" edo "**sozietate**" hitza berriz, erdarakada hutsa deritzagu. Sarritan jo beharko dugu mailegutara gure jakintza arloan, baina hitz jatorrak erabiltzeko aukera daukagunean, ezin dugu abagadune hori besterik gabe baztertu.

---

(7) Honek ez du esan nahi beste "sozietateek" ezingo dutela irabazi asmoa ez den bestelako helbururik izan.

(8) Berrirerrepikatzen dugu interes pribatu hau ez dela nahi eta nahiz ez irabazi asmoa.

Ikus dezagun hiztegitan azaltzen zaizkigun beste zenbait ordain: "lagundi", "lagungo", "lagundi", "bazkun", "baltzu", "elkargo" esate baterako. Beste testu eta hiztegi batzuk kontsultatu baditugu ere, funtsezko bezala erabili ditugunak hauek izan dira:

— AZKUE, "Diccionario vasco-español-francés", Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

— MICHELENA, "Orotariko Euskal Hiztegia", Euskaltzaindia, Bilbo, 1989.

— MUGICA, "Diccionario vasco-castellano", Mensajero, Bilbo, 1981.

"Diccionario castellano-vasco", Mensajero, Bilbo, 1987.

— Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca", La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1976.

— SARASOLA, "Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia", Gipuzkoako Kutxa.

— UZEI, "Zuzenbidea Hiztegia", Elkar, Donostia, 1990.

— HAEE, "Europako Itunen Hiztegia", 1991.

Azkiek adibidez, jasotzen du "**lagungo**" hitza "sociedad, compañía" adierazteko. P. Mugicak ere hartzen du hitz hau "sociedad, compañía, asociación" esanahiarekin, baina baita "ayuda, acompañamiento, compañerismo, equipo" bezala ere. Ibon Sarasolak berriz, lagunartea ("utzi ezazu emazteen lagungoa") edo laguntzaren ("lagungoa galdatu") baliokide bezala ematen du hitz hau, "lagunarte" honela definitzen duelarik: "lagunekin izateko zertzelada; toki batean gertatzen diren lagunuen multzoa" eta "laguntza" berriz norbaiten alde egitea, bere ahaleginak haren ahaleginei batuz edo haren premia edo beharrei erantzunez laguntzeko egiten edo ematen den zera". Azkenik, UZEIk ez du bere "Zuzenbidea" hiztegian jaso.

Ikuspegi juridiko batetatik abiatuz, ez zaigu hitz tekniko bezala erabiltzeko proposamen egokiena iruditzen, "lagun" erroak harreman pertsonal berezi batzutan pentsatzera bultzatzen baikaitu. Aprobetxagarria litzateke agian "sozietate" mota berezi batentzako, egitura pertsonalista duen batentzat, baina ez kontzeptu orokorrenerako.

"**Lagundia**" hitza P. Mugicaren hiztegian bi esanahi desberdinekin azaltzen da: bata, "sociedad, compañía, asociación" eta bestea, "acompañamiento, multitud, e.a.". I. Sarasolak lagunartearen baliokide bezala hartzen du. Hitz honen erabilerak erlijioarekin izan duen lotura azpimarratuaz, "Jesusen Lagundia" jartzen du adibide gisa.

"**Bazkun**" I. Sarasolaren hiztegian hitz berri bezala azaltzen da, antza denez, 1897. urtean lehen aldiz ikusten delarik... "bereziki mende honen hasierako elkarteri eman zitzaizen izena... "Lagun Onak" mendizale-bazkuna..., "Nafarroako Euskararen adiskideak deritzan bazkuna..." Dirudenez "bazkun" eta "elkarte" hitzak kasu beretan eta esanahi berarekin erabili izan dira. Azken honi buruz esaten dugunak beraz, balioko digu baita "bazkun" terminoarentzat ere.

P. Mugicak bere hiztegian aldiz, beste esanahi asko ematen dizkio: "conjunto, club, asamblea, colectividad, agrupación" e.a. baina baita "asociación, sociedad, compañía, corporación, consorcio" ere. Hiztegi honek aztertzen ari garen terminoak behin eta berriro elkarren baliokide bezala ematen dizkigu, baina guk aukera tekniko bat egin behar dugu eta egitura juridiko bakoitzari hitz bat esleitu, Zuzenbidean garbi jakin behar bait dugu momentu bakoitzean zertaz hitz egiten ari garen zehazki.

Azkenik, "Sociedad" euskaraz esateko bada beste hitz jator bat: "**BALTZU**". Hiztegi gehienetan jasotzen den hitza da, nahiz eta orain arte oso zabaldua edo erabilia ez izan.

Azkuék Bizkaian, konkretuki Mundakan, kokatzen du bere erabilera; "sociedad de comercio, alianza" itzulpena ematen dio eta azalpen labur eta adierazgarri bat egiten du ondoren: "Lo he oído muchas veces",

L. Michelenak, "Orotariko Euskal Hiztegia" lanean berridazten ditu hitz hau jasotzen duten zenbait testu:

"Orain Sacramenton nago ingeles batekin baltzuan, bion artean arroztegi handi bat, hotel bat egin dugu urriaren erdi-erdian"... "Nire garazak ederki zijoazik. Nire baltzulagun onek Mister Stephenson dik izena"... "Orain amar bat urteta geixago, 1923garren urteko lotazilean Carol Society deritzan baltzua, eguberri kantak zabaltzekoa, bere yaioterrian sortu zuen berak"... "Baserritarrak, lugin edo labradoreak, euren eskubide ta ondasunak zaintzeko alkarrekin batzandu behar leukie, euretarikoa eztanik baltzu orretan artu barik"... "Garazkide den langillearen bat il, nai baltzutik urtengo balitz, orren lan garazkiok erosteko eskubidea baltzuak berak dau".

Hauek Azkueren idatziak dira gehienak, baina badaude Jules Moulrier "Oxobi"renak eta Jon Eguzkitzarenak "Baltzukide" eta "baltzu" terminoak erabiltzen dira "socio" eta "asociarse" zentzuan. Esanahi zabalagoarekin azaltzen digu L. Michelenak "baltsa" hitza "comunidad, grupo, multitud, reunión, asociación" terminoen baliokide bezala. Bere jatorria baxenafarrera eta lapurterako euskalkietan kokatzen du, Silvain Poivreau ren (XVII.m), Larramendiren (XVIII.m), Maurice Harrieten (XIX-XX.m) eta Jean Duvoisinien testutan oinarrituaz

I. Sarasolaren Hiztegian ere badator "elkartea, bazkuna" bezala. Lehen agerraldia Azkueren Hiztegian litzatekeela esaten digu, 1905.urtean

HAEEK argitaratu berria duen "Europako Itunen Hiztegia" erabili izan da, nahiz eta ez beti modu egokian. Hona hemen adibide pare bat:

1. *adibidea* E.E.E.ren Eratze Itunean esan denean:

— "par sociétés on entend les sociétés de droit civil ou commercial"

— "ais Gesellschaften gelten die Gesellschaften des bürgerlichen und des Handelsrechts"

— "per società si intendono le società di diritto civile u di diritto commerciale"

Euskeraz eman den ordaina hauxe izan da:

— "baltzua esanez herri-legezko edo merkataritza-legezko *baltzua edo enpresa* esan nahi da"

Gaztelera "sociedad" itzulpena ere ez da batere egokia izan:

— "por sociedad se entiende la empresa de Derecho civil y mercantil"

Lehenengo galdera: zergatik bi hitz (baltzu eta enpresa) jatorrizko testuetan bat bakarrik agertzen bada? Ezagun du itzultzailea Merkatal Zuzenbidean aditua ez dela. Bi hitz horiekin bi kontzeptu desberdin adierazten



dira. Ez dago nahasterik "*baltzua*"—jarduera bat burutzeko talde batek sortzen duen antolamendua, baltzukideen arteko harremanak eta baltzuak hirugarrenekin izango dituenak (erantzukizuna eta ordezkapena, batez ere) eraentzeko—eta "*enpresa*".

2. *adibidea*. Beste kasu batzutan "baltzu" hitza erabili izan da soilik:

- "la posibilidad de fusión des sociétés"
- "die Möglichkeit der Verchmenizung von Gesellschaften"
- "la possibilita di fusione de societá"
- "la posibilidad de fusión de sociedades"
- "baltzuak bategiteko ahalbidea"

UZEIk era jaso du "baltzu" terminoa "Zuzenbidea Hiztegian", "sociedad mercantil" itzulpena emanaz. Aldiz, "sociedad" —zentzu zabalean— "elkarte" edo "elkargo" bezala ematen da. Baina bi izen hauek, era berean, "asociación" izendatzeko ere erabiltzen dira. Gure alorrean horrek sekulako nahasketa sortarazten du, "sociedad" zentzu orokorrean eta "asociación" bi kontzeptu bereiztu baitira.

Hizkera juridikoa hizkera estandarizatu bat izanik, usu aukera bat egitea da gure egitekoa, konbentzio hutsa, baina burutapen sakon baten ondorioa. Beraz, testuinguru hauek kontutan izanik, argi azaltzen zaigu erabat ahalgarria dela, gazteleraz "sociedad general" izenez ezagutzen den fenomenologia, euskaraz "**BALTZU**" hitzez izendatzea. Baina aukera egitea ez da nahikoa, "sociedad mercantil" deritzan bakar bat ez baitago, mota desberdinetakoak baizik. Hau da, "baltzu" izenarekin ez dugu dena egiten, gainontzeko hitzen bat erantsi beharko diogu, esate baterako: "izengabeko baltzua" (gaztelerazko S.A.), "erantzukizun mugatuko baltzua" (gaztelerazko S.L.), "lankide-baltzua" (gaztelerazko S.Coop.), e.a. Aipaturiko aukera guzti hauek ere badute beren izateko arrazoa, nahiz eta une honetan ez ditugun luze argituko.

Bestalde, aipaturiko "asociación" kontzeptuaren ordain bezala "**ELKARTE**" har dezakegu. I. Sarasolak bere hiztegian hitz honi buruz ematen duen azalpena hau da: "helburu jakin batek elkartzen dituen lagun multzoa". Guk gehiago esan beharko dugu eta definizio hori osatu. Aurrerago zehaztu dugun bezala, egitura antolatu berezi bat duen multzoa da. Ildo honetatik, onargarria litzateke "Euskal Herriko Nekazarien Elkartea", "Aitziber Kirol Elkartea", "IPES" Kultur Elkartea, "enpresa-elkarteak", e.a. esatea. Erabilera hau oso zabalduta dago, eta egokia izanik, ez dugu arrazoirik ikusten aldatzeko. Gure gizartean interés eta jarduera desberdinak bultzatzeko sortzen diren taldeei "elkarte" deitzen ohituak gaude. Talde hauek hartzen duten janzkera juridikoa gaztelerazko "asociación" delako instituzioarena da, beraz erabilera guztiz onargarria deritzagu.

Elkarte terminoaz gain, "elkargo" erabili izan da bai "sociedad" baita "asociación" bezala ere. Lehenengo aukerak soilik nahasketa sortuko lukeela uste dugu, horregatik egokiago deritzogu I. Sarasolaren irtenbidea. Bi baliokide ematen ditu bere "Hauta-Lanerako Hiztegian": "1. Elkar-hartzea, hitzarmena. 2. Elkartea, bereziki zenbait lankideetarako kideak osatzen dutena. Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako Industri Injinadoreen Elkargoa. Elkargoko Aginte-Batzordea".

Azkenik, hasieran azpimarratu dugun gaztelerazko hirugarren hitza "**comunidad**"—geratzen zaigu. Hemen arazoa garbiago azaltzen da. Esan dugu aurrerago "comunidad" delakoa jabetzaeskubidearen tituluduntza modu bat besterik ez dela. Zentzu berberarekin "**ERKIDEGO**" hitza ematen digu Azkuek. Hau "sociedad, comunidad" bezala itzultzen badu ere, "erkida"ren zentzua argitzen du "a medias, entre ambos, copropietario", "erkida behro xoriendako, campo perteneciente a muchos es sembrado para pájaros Retanak eta P. Mugicak ere jasotzen dute ideia berdinarekin. Azkenik. UZEI-k erdibana izatearen zentzuarekin erabili du, "ondasun erkidegoa "lan erkidegoa" bezalako terminoak sortuaz.

#### IV. Ondorioak

Lan labur honekin azken urteotan bilakatzen ari den euskara juridikora ekarkin bat egin nahi izan da, zuzenbidezko ikuspegi batetatik. Merkatal Zuzenbidean berezko pisua duten hiru kontzeptu aukeratu dira horretarako hauen euskarazko erabilpen egoki eta bateraturik ez baita egin, nahiz eta benetan premiazkoa izan. Gazteleraz "sociedad", "asociación", "comunidad" deiturikoentzat euskal hitzak bilatzen saiatu gera eta xede horrekin proposatzen ditugu "baltzu", "elkarte" eta "erkidego".

Bada ez bada ere, gure lanean besterik gabe garbizalekeria ikusi nahi duenarentzat, zer erantzun badaukagu. Aurrerago esan bezala, euskarazko hitzak bilatzen saiatu gera eta aurkitu ere egin ditugu. Errazena, gehiegi busti gabe, erdal hitza hartu eta euskal atzizkia jarriaz konformatzea litzateke, baina hori ez zaigu bidezkoa iruditzen. Zuzenbidearen hizkuntza artifizial honetan, kasu askotan soilik maileguaren irtenbidea geratzen bazaigu ere, konplexuak alde batera utzi eta aurreiritzirik gabe lan egiteko ordua bada. Hori alde batetik eta bestetik, proposaturiko hitzak ez ditugu guk geuk asmatu. Aldiz, termino hauen erabilera frogatu dugu hizkuntza arloan so beran aurre ezagutuak izan diren adituen testuekin.

Baina ez hori bakarrik, itzuli beharreko hitzen esanahia eta zentzua argitzea behar beharrezkoa da edozein aukera egin aurretik. Horretarako Merkatal Zuzenbidean gai zehatz honetan beren jakinduria eta goren maila azaldu duten adituen lanetara jo dugu, nagusiki J. Girón Tena eta C. Paz Ares maisuengana, beste batzuen artean.

Guk proposaturiko hitz hauek oraindik erabilera zabalik ez dutenaren jabe gera. Egokiak iruditzen zaizkigunez, horretxegatik aurkezten ditugu, lan hau irakurtzen duenak erreflexio bat egin dezan gaiaren inguruan. Ziur gaude duela hamar bat urte "helegitea tarteratu" ulertu eta erabiltzen zuenik gutxi zela. Gaur egun aldiz, "errekurtsoa jarri" kalekoentzat edo ezjakinentzat geratzen da. Bilakaeraren gurpila aurrera doa euskara teknikoan dagokionean. Ondorioz hitz asko eta asko ikasi beharra izango dugula pentsatzen da. Noski, baina ikasi orden gogoratu esango nuke edo eta berreskuratu, gure hizkuntza honetan                    uste                    baino                    gehiago                    ditugulako.